



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1998ko martxoaren 25ean

21. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

—Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektua. Gizarte Gaietako Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak eta Mozioak:**

- Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholku-emileari buruz zenbait neurri har ditzan, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (10. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako autonomia fiskala eta finantzarioa aintzat har dezan, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (11. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Aceralia Taldeko lanpostuak mantentzeko behar diren urratsak eman ditzan, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (12. or.).
- Mozioa, Hezkuntza Departamentua premiatzen duena Derrigorrezko Irakaskuntzaren ondoko Eskola Mapa bat bidal dezan, «Socialistas del Parlamento de Navarra» eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeek aurkeztua (14. or.).
- Emakume Langilearen Nazioarteko Egunari buruzko aldarrikapen politikoa. Bozeramaileen Batzarrak onetsia (16. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Musika irakaskuntzaren beharren gaineko ikerlana egiteari eta Udal Musika Eskolen finantziarioari buruzko galdera, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (17. or.).
- Pekinen egitekoa den Nafarroako Enpresarien Erakusketa Iraunkorrari buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
- Tracasako langileei bidalitako posta-komunikazioei buruzko galdera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak egina (19. or.).
- DBHrako hitzartutako zentroen gaurko egoerari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (19. or.).

- Ezkaba kanpineko errentamendu-kontratuari buruzko galdera, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egin (20. or.).
- Etxe langileen gizarte- eta lan-aurrerabidea sustatzeko aurreikusitako jarduketari buruzko galdera, Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak egin (21. or.).
- Tuterako udalaren dantza taldearentzako laguntzei buruzko galdera, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egin (21. or.).
- Nafarroako Jaialdien programazioari buruzko galdera, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egin (22. or.).
- Iruñeko kongresu jauregia-entzategiko eraikuntzaren eta kudeaketaren balizko pribatizazioari buruzko galdera, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egin (23. or.).
- Mendillorri bereizketa espedienteari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egin (23. or.).
- Zentro publikoetan “Zentroko Proiektu Linguistikoa”ri buruz informazio-hitzaldiak emateari buruzko galdera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak egin (24. or.).

---

**A Saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektua**

### *GIZARTE GAIETAKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez, Gizarte Gaietako Batzordeak Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektuari buruz eman duen Irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Proiektu hori 1997ko abenduaren 19ko 87 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz Osoko Bilkuran emendakin hauek defendatzen ahalko dira:

– 1, 5, 9, 11, 12, 24, 27, 32 eta 55 zenbakikoak, «Askotariko» Parlamentari Taldeko Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak aurkeztuak.

– 47 zenbakikoa, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– 20, 28 eta 39 zenbakikoak, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztuak.

Emendakin horiek 1998ko martxoaren 6ko 17 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 1998ko martxoaren 20an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektua**

#### ZIOEN AZALPENA

##### I

Espainiako Konstituzioak 9.2 artikuluan jasotzen duenez, botere publikoen betebeharrak beharrezkoak diren baldintzak sustatzea banakakoaren eta berau sartzan den taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezten; horien betetasuna galarazten edo zailtzen duten eragozpenak kentzea eta politika, ekonomia, kultura eta gizartearen arloan hiritar guztiek parte har dezaten erraztea.

Era berean, Europako Agiri Sozialak, pertsona guztiei gizarte-ongizateko zerbitzuez baliatzeko eskubidea aitortuz, zerbitzu horiek sortzeko eta mantentzeko banakakoek eta erakundeek parte har dezaten bultzatzen du.

Aurreko guztiaren ildotik, Europako Kontseiluak eta Europako Parlamentuak, Erabaki eta gomendioetan, neurri orokorrak taxutu dituzte hiritarrak jabetu daitezten gizartearen arazoez eta horiek konpontzeko bolondres-lanak, aisialdia modu konstruktiboan erabiliz eta gizarte-ekintzan parte hartuz, egin dezakeen ekarpenaz.

Aipaturiko gomendio eta Erabakiek adierazten dute beharrezkoa dela Estatuak zehaztea, ongizate-politikak taxutzean, bolondres-erakundeek eta administrazio publikoen menpeko zerbitzuek bete behar dituzten berariazko eginkizunak, eta bermatu beharra dagoela profesionalen eta bolondresen beraien arteko lankidetzak, azpiegitura publikoak guztiek erabiltzea eta prestakuntza-programak garatzea; hori guztia, eskura dauden baliabideak osagarriak izan daitezten.

##### II

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari Buruzko Lege Organikoak berritu egin ditu Nafarroaren eskumen historikoak, Nafarroako gizartea kezkatzen duten alderdi guztiei buruzkoak direnak. Horien artean dago legegintzako eta antolamenduko eskumena, hiritarrek Foru Komunitateko ongizatea lortzeko parte hartzeari dago-kiona.

Egun, pertsonetikiko eta kausa sozialekiko elkartasunak zabalpen handia lortu du eta gizarte-ko arlo guztiak ukitzen ditu. Nafarroan nabarmen dira gobernu kanpoko erakundeetan diharduten bolondresen kopurua eta partikularren zein Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen diru-ekarpenak, garatzen ari diren herriak xede dituztenak, gehienbat.

Kontzientziazio sozial horrek bolondres entitateak eta bolondresak berak asko gehitzea eragin du. Horrek komenigarri egiten du haien eskubide eta eginbeharrak legez ezartzea, Volonteupe erakundeak izenpeturiko Europako Bolondresen Gutunarekin bat.

Halaber, elkartasunaren frogak horrek behar-tzen du agintaritzaren publikoaren sustengu tekniko eta ekonomikoa ematera, bolondres lana bultzatzeko, gizartea informatuz, bolondres lanetan diharduten pertsonak prestatuz eta entitateak sustatuz, haien jarduerak ezagutaraziz eta diruz lagunduz.

Erantzun gisa, Foru Erakundeek, borondatezko lanak agerian uzten duen elkartasunaren inguruan Nafarroako gizarteak duen jarrerari erantzun behar diotenez gero, talde-ahalegin altruista hori honako honetara zuzendua egon dadin beharrezko diren bitartekoak eskaini behar dituzte: guztion onurara eta demokrazia sakontzera, horiek hiritarren partehartze tinkoaren eta elkartasunezko jarreraren sustapenaren ondorio izanik.

Hori dela-eta, 1997-2000 eperako Nafarroako Gerontologia Planak, lehenengo erabaki-proposamenean, Bolondres-lanari buruzko Foru Lege Proiektu bat aurkeztera premiatzen du Nafarroako Gobernuak.

### III

Bolondres-lanaren fenomenoak etengabeko hazkuntza jasaten ari da, Elkartasun printzipioan oinarrituriko ongizate-gizartea garatzearen ondorioz. Administrazioaren eta partikularren arteko harremanak taxutzeko sortu zen printzipio hori, gaur egun, partikularren arteko harremanetara ere hedatu da. Horiek parte hartu nahi dute gizartearen aurrerapenean eta Ongizatearen Estatuaren sendotzean, eta beharrezkoa da legezko oinarri batzuk egotea, horietatik abiatuz hiritarrek modu solidarioan jardun ahal izan dezaten. Bolondresen eskuzabaltasunak eta beren burua besteren esku-jartzeak berariazko arautze juridikoa eduki behar dute, jarrera hori mugatu edo murriztu gabe antolamendu bat ezarriko duena bolondresen erkidegoari ematen dizkieten zerbitzuei dagokienean, aldi berean horien jarduerak sustatuz.

Bestalde, bolondres-erakundeek erkidegoari ematen dioten zerbitzu itzela kontuan izanik (bolondresen ekimen, ardura eta elkartasunerako izpiritua garatuz, guztion interesaren alde modu eraginkorrean osagarri gisa jardunez -are ekimena izanik, batzuetan-, gizartearen baitan bitartekaritzaren, elkartruke eta orekarako eginkizun ordezkatetza burutuz), beharrezko gertatzen da erkidegoaren jardunean erakunde horiek parte-

hartze handiagoa izan dezaten bultzatzea, eta horretarako legegintzako prozedura argiak eta eraginkorrak ezarri behar dira.

Foru Lege honen bitartez, Nafarroako Administrazio Publikoaren sustenguekin, herritarrak bolondres jarduketetan parte hartzera bultzatzeko behar diren bideak ezartzen dira. Bolondresen parteide diren erakundeekiko dituzten eskubide eta eginbeharrak funtsean arautzen dira eta egitarauaren kalitatearen hobekuntza sustatzen, agintaritzaren publikoaren laguntza tekniko eta ekonomikoaren bidez, bolondresen zerbitzua ematen dieten pertsona eta kausen onerako.

Foru Legean aurreikusten diren jarduketak bat datoz Europako Kontseiluko Ministroen Komiteak estatu kontseilukideei bolondres lanari buruz eman zien Gomendioarekin eta Estatuaren eta Autonomia Erkidegoetako administrazioek berriki onetsiriko 1997-2000 lau urteko Estatuaren Bolondres Lanerako Planaren sentikortu, sustatu, lagundu eta koordinatzeko ezarritako programarik modernoekin.

## I. KAPITULUA

### Xedapen orokorrak. Xedea eta definizioak

**1. artikulua.** Foru Lege honen xedea herritarrak bolondres lanetan parte hartzera bultzatzea da, kemenez, askatasunez, elkartasunez, altruismoz eta erantzukizunez, edozein titulartasunetako irabazteko asmorik gabeko erakundearen bidez, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan izatera horretako egitarau edo jarduerak etengabeak burutzen badituzte, eta bolondresen, bolondres entitateen eta Nafarroako Administrazio Publikoaren artean harremanak ezartzea.

**2. artikulua.** 1. Foru Lege honen ondorioetarako, bolondres lantzat jotzen da askatasunez eta altruismoz, gizakien arteko elkartasuna xede izanik, pertsonen edo komunitateari zerbitzuak emateko, irabazteko asmorik gabeko entitateetan antolatzen diren pertsonen gizarte portaera.

2. Espreski salbuetsita daude edozein lan harremanen eta eginbehar pertsonal edo juridikoren ondorioz, famili zioengatik edo adiskidetasunagatik ematen diren jarduerak oro, baita ordainduriko lanaren ordezkioak direnak eta noizbehinkakoak, segidarik eta egitaraurik gabekoak ere.

3. (KENDUTA).

**2. bis artikulua.** Ondokoak dira bolondres lanaren oinarritzako printzipioak:

a) Askatasuna, gizartearekin konpromisoa hartzeko aukera pertsonal gisa, beti ere uste sendoak eta sinesmenak errespetatzen direlarik, bai bolondresarenak, bai ekintzaren onura jasotzen duenarenak;

b) Beste pertsona edo taldeekin elkartasuna, hori besteen aldeko ekintza bihurtzen denean, edota gizarte-interes kolektibo bihurtzen denean;

c) Partehartzea, hain zuzen, komunitateak dituen arduetan eskuhartze aktibo eta zuzena izateko printzipio demokratiko gisa;

d) Ematen den zerbitzuaren doakotasuna, inongo etekin materialik bilatu gabe;

e) Autonomia botere publikoekiko;

f) Ardura, laguntza denboran zehar eutsia izan dadin, etorkizun egonkor eta zehatz batekin, eta betiere, emaitzak modu iraunkorrean ebaluatuz;

g) Bolondres lanetan diharduten entitateek gizartearen beharrezanean denboran zehar era iraunkorrean arreta eskaintzeko konpromisoa, ahal den eta kalitate handienarekin eta emaitzak etengabe ebaluatuz. Hori guztia botere publikoetatik aparte jarduteko erabateko autonomia dutela.

eta orokorrean, gizarte demokratiko, ireki, moderno eta partehartzaile batean elkarbizitza inspiratzen duten guztiak.

**3. artikulua.** Bolondrestzat hartzen da herritarrendako eta gizartearendako jarduerak egiteko irabazteko asmorik gabeko erakunde batean sartzten den pertsona fisiko oro. Jarduera horiek aurreko artikuluan zehazten den bolondres lanaren kontzeptuaren barruan egon behar dute.

**4. artikulua.** 1. Bolondres entitateak legez osaturik dauden pertsona juridikoak dira, irabazteko asmorik gabeko gizarte egitarau edo jarduerak, pertsonen edo gizarte taldeen onerako, egiten dituztenak, horretarako gehienbat bolondresak badarabiltzate langiletako.

2. Bolondres entitateei lan eragiten dieten egitarauen alorrak hauexek dira: gizarte zerbitzuak, hezkuntza, kultura, zientzia, aisia, kirola, osasuna, ingurugiroaren defentsa, garapenerako lankidetzeta, babes zibila, ekonomiaren sustapena, laneratzeta eta lan integrazioa, elkartegintza, udal interesak, bolondres lanaren sustapena eta, oro har, bolondresen lanaren bidez burutzen diren eta Foru Lege honetan xedaturikoarekin bat datozen egitarauak burutzen direneko alorrak.

2. Bis. Bereziki sustatu eta lagunduko dira bolondresengan berrikuntzarako ahalmena eta

berez jarduteko ahalmena, gizarte partehartzaileago, gizalegezkoago eta abegitsuagoa eraikitzeke.

## II. KAPITULUA Bolondresak

**5. artikulua.** Bolondres entitateetan sartzten diren bolondresek eskubide hauek dituzte:

1. Pertsonari berari dagozkionak:

a) Bolondres lanetan onartuak izatea eta jardueretan inolako bereizkeriarik gabe tratatuak izatea, askatasuna, intimitatea eta sinesmenak errespetaturik.

b) Entitatearen antolamenduan kemenez parte hartzea, egitarauen prestakuntza, diseinu, exekuzio eta ebaluazioan lagunduz, bere lehentasun eta gaitasunen arabera, aplikatzekoak diren estatutu edo arauak errespetatuz.

c) Entitatearen helburu eta izaerarekin zerikusirik ez duten eginkizunik manatuak ez izatea.

d) Justifikatzen duten zioak daudenean, entitatearen ahalbideen arabera, manaturiko egitarauaren aldaketa lortzea.

e) Lankidetzaren gizarte balioagatik errespetua eta eskerrona lortzea eta egitarauetan parte hartu duela frogatzen duen ziurtagiria jasotzea.

f) Bolondres izateari askatasun osoz uztea.

2. Informazioari eta prestakuntzari dagozkienak:

a) Parte hartzen duteneko entitatearen helburu, antolamendu, funtzionamendu eta egoera ekonomikoaz informatuak izatea.

b) Manatzen zaizkien eginkizunetan aritzeko prestatuak, orientatuak eta lagunduak izatea, garatzen duten bolondres lana eten gabe hobetzea lortzeko.

3. Gauzakeri dagozkienak:

a) Beren lanean behar bezalako segurtasun eta higiene egoeran aritzea, haren izaera eta ezaugarrien arabera.

b) Bolondres lanaren zuzeneko ondorioak diren istripu eta gaisotasun arriskuen kontra aseguruak izatea, ezartzen diren ezaugarriekin eta ezartzen diren kapital aseguratuetan.

c) Manaturiko eginkizunean aritzeko behar dituzten gauzako baliabideez hornituak izatea.

d) Beren lanean aritzeko behar duten nortasun agiria lortzea eta agintariek eta, oro har, gizarteak hala aitortuak izatea.

e) Bolondres gisa beren lankidetzak eskaintzen duten ekitaldietan askatasunez sartzea.

f) Beren lanetan izaniko gastuak ordainduak izatea.

**6. artikulua.** Bolondresak, bolondres entitateetako kideak diren aldetik, eginbehar hauek dituzte:

a) Beren zerbitzuak beren jardueraren xede diren pertsonetik inolako bereizkeriarik edo aurreiritzirik gabe egitea, haien duintasuna, askatasuna, intimitatea eta sinesmenak errespetatuz

b) Beren lana ahalik eta hobekien egitea, erakundearen sartzeko harturiko konpromisoari atxikiz, haren helburu, xede eta arauteria eta hartzen dituzten jarraibideak onartuz, erakundearen ikurrak eta agiriak behar bezala erabiltzea, eta erakundeak haien eskura jartzen dituen gauzako baliabideak errespetatzea.

c) Behar denean, bolondres lanean hartu eta ezagaturiko informazioaren isilpekotasuna gordezea.

d) Beren lanagatik edozein gauzako sariri uko egitea.

e) Proposatzen zaien prestakuntzan kemenez parte hartzea, bolondres lanaren kalitatea hobetuko badu.

### III. KAPITULUA

#### Bolondres entitateak. Erregistroa

**7. artikulua.** 1. Bolondresak erakundeetan sartzeko idatziz formalizatuko da, behar den erabaki edo konpromisoa harturik, harremana altruista dela ezartzeaz gain, bederen eduki hau ere izan behar duena:

a) Sartzeko deneko erakunde eta egitarauaren deskripzio, helburu eta xedeak.

b) Bi aldeei dagozkien eskubide eta eginbeharak, Foru Lege honetan xedaturikoari dagokionez.

c) Bolondresak konpromisoa hartzen dueneko eginkizun, jarduera, iraupen eta lanaldiaren edukia, baita konpromiso hori hausteko zio eta erak ere.

d) Eginkizunetan aritzeko behar den prestakuntza prozesua.

2. Kideak agiriarekin erakundearen artxibatuko da eta kopia bat luzatuko da bolondresarendako.

**8. artikulua.** 1. Bolondres entitateek, onartuak izan eta instituzio publikoen laguntza jaso ahal izateko, indarrean dagoen araudiari jarraituko diote, bereziki, funtzionatzeko modu erabat demo-

kratikoari dagokionean, Foru Lege honetan eta aplikagarri den beste edozein arautan ezarritakoa betez, eta erabat errespetatuko dituzte bolondres lana zuzentzen dituzten printzipioak eta bolondresen eskubideak.

2. Bolondres entitateek estatutu bat onetsiko dute, bolondresetik harremanak arautuko dituen.

**9. artikulua.** 1. Bolondres entitate orok Bolondres Entitateen Erregistroan eman beharko du izena. Izen emate hori ofizioz izapidatuko da bolondres entitateak Nafarroako Gobernuaren departamentuaren menpeko erregistroan agindu bezala inskribatua izatea eskatu eta bertan bolondres entitate gisa erregistratzeko nahia adierazten duenean.

2. Inskribatuak izateko, bolondres entitateek Foru Lege honetan xedaturikoa bete beharko dute eta, zehazki, hurrengo artikuluan xedaturikoa.

3. Erregistroko baja entitateak eskaturik egiten da edo, ofizioz, nortasun juridikoa iraungitzen denean edo Foru Lege honetan eta hori garatzen duen arauterian xedaturikoa larriki bete ez dela egiaztatzen denean.

4. Erregelamendu bidez, erregistroaren antolamendua garatuko da eta xedatuko zer departamentuari atxikiko zaion eta zer prozedura administratibo erabiliko den horretan sartzeko.

**10. artikulua.** 1. Bolondres entitateek legeari jarraituz eraturik egon beharko dute eta nortasun juridikoz horniturik, entitateak garatzen dituen egitarauetan parte hartzen duten bolondresen eskubideak errespetatu eta horiei erantzun positiboa eman behar diete, eta haien elkartasuna eta laguntza behar dituzten pertsona eta taldeen aurrean inongo bereizkeriarik gabe aritu.

2. Derrigorrezkoa da aseguru-poliza izenpekoa, bolondresak bolondres lanean dihardutenean istripu eta eritasun arriskuei aurre egiteko, eta beren jardueraren ondorioz eragin dezaketen kalteagatik hirugarrenen aurrean erantzukizuna hartzeko.

3. Bolondresen alta eta baje liburuak eduki beharko dute, non horiek sarturik daudeneko programa eta hitzarturiko lanaldia agertuko baitira.

4. Bolondres entitateek beren jardueretan arlo publikotik zein pribatutik jasoriko laguntzak aitortuko dituzte, gutxienez urteko oroit-idazkian.

4. Bis. Bolondres lana egiten duten entitateek oroit-idazki orokor bat egin beharko dute, gutxienez urtean behin. Oroit-idazki horretan ondokoak adieraziko dira: buruturiko jarduerak, horien aurre-

kontu justifikatua, bolondresen zerrenda eta horien atxikipena.

Oroit-idazki hori dagokion departamentura igorriko da.

#### IV. KAPITULUA Bolondres lanaren sustapena

**11. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoek bolondres lana eta elkar-tasuna sustatuko dituzte gizarte zibilaren baitan, informazio ekintzen, bolondres lana zabaltzeko eta aitortzeko ekinaldien, pertsonen partaidetzaren eta hiritarren laguntza ekonomiko eta sozialaren sustapenaren, jarduketan kalitatea hobetzeko bolondresen prestakuntzaren eta, kasuan kasuko programetan, bolondres entitateendako laguntza teknikoaren bidez. Azkeneko hori, bai gauzazko baliabideak, bai administrazio publikoetako langileak lanaldi osoan edo ez osoan aldi baterako utziz, horien beharra aski den moduan frogatzen bada.

Bereziki sustatuko da jendearen ezagutza bolondresen eginiko lanari buruz eta beren jarduerara esparruari buruz, horrela, dagokien gisan, gizartearen onspena lor dezaten.

**12. artikulua.** Bolondresak askatasunez sartzen ahalko dira parte hartzen duteneko entitateak ofizialki bolondres jarduera bat programaturik daukan ekitaldi eta tokietan eta erregelamendu bidez ezartzen diren hobari edo diru-murrizketak gozatzeko ahalko dituzte.

**13. artikulua.** 1. Nafarroako Foru Komunitateak bolondresendako egitarau eta jarduerari eutsiko die diruz. Horretarako behar diren kontusailak kontsignatuko dira aurrekontuetan.

Kasuan kasuko deialdi publikoen bidez emanen dira dirulaguntzak eta bolondres entitateekin hitzarmenak edo itunak izenpetuko dira izaniko gastuak ordaintzeko. Hori dena indarra duen lege-riarekin bat.

2. Laguntza teknikorako eta bestelako sustengu berezietarako fondo horiek eskuratzeko, bolondres entitateek Bolondres Entitateen Erregistroan inskribaturik egon beharko dute eta adierazi, zer egitarautarako eskatzen duten laguntza, espreski hau aipatuz: izena, deskripzioa, xedeak, parte hartzen duten bolondresei eska dakiekeen prestakuntza, iraupena, onuradunak, bolondres kopurua, lanaldia eta manaturiko eginkizunak, parte hartzen duten soldatapeko langileak, hala bada, egitarauaren arduraduna, aurrekontua eta finantzabidearen iturriak eta barne ebaluazioaren sistema.

3. Erregelamendu bidez, laguntza horiek eskuratzeko administrazio betebeharrak zehaztuko dira eta erregistroan izena emaniko entitate bakoitzaren urteroko oroit-idazkiaren aurkezpena arautuko da, aitorturiko egitarauak eta ebaluazioa zehaztuz.

**14. artikulua.** Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseiluaren iritzian oinarriturik, urtero Nafarroako bolondresaren aipamena eginen du bolondres lanean jarduteagatik, bolondres jarduerako gizarte ereduagatik edo bolondres jarduketek oihartzun berezia lortzeagatik nabarmendua den pertsona fisiko edo juridikoren alde.

Erregelamendu bidez ezarriko dira horretarako betebeharrak zehatzak.

#### V. KAPITULUA Nafarroako Administrazio Publikoak

**15. artikulua.** 1. Bolondres Lanerako Departamentuarterako Batzordea sortzen da, bolondres laneako egitarauarekin loturiko departamentuetako zuzendari nagusiek osatuko dutena.

Haren lehendakaritza eta haren idazkaritza Bolondres Entitateen Erregistroa kudeatzen duen departamentuari egokituko zaizkio.

2. Hona hemen Batzordearen eginkizunak:

a) Bolondres lana bultzatzeko politika amankomuna ezartzea.

b) Departamentu guztien plangintza koordinatu eta bultzatzea, jarduketak gizartearen atalik premiatsuenen alde bideratu eta entitate berrien sorrera sustatzeko.

c) Departamentu guztiek burutuko dituzten ebaluazio eta kontrol jarduketan berri izatea.

Urtero, bolondres entitateekiko dirulaguntza eta itunak koordinatuko ditu, jarduketa osagarriak lortu eta errepikapenak saihesteko.

Halaber, Nafarroako bolondresen gidaliburua argitaratuko du urtero. Bertan erregistraturiko entitate guztiak, haiek eginiko programak eta gainerako datu esanguratsuak agertuko dira. Ahalik eta gehien zabalduko da.

3. Batzordea abian jartzeko eta informazio eta prestakuntza jarduketa amankomunak burutzeko erregistroaz arduratzen den departamentuko aurrekontuan kontusail bat kontsignatuko da.

**16. artikulua.** (KENDUTA).

**17. artikulua.** Foru Komunitateko Administrazio Departamentuek, bolondres lanarekin zeri-

kusirik duten jardueretan, dagozkien eginkizunak burutuko dituzte, bereziki plangintza eta ikuskaritza.

**18. artikulua.** Nafarroako Toki Entitateek, soil-soilik beren esparruan garatzen den plangintza, antolamendu eta ikuskaritza eskumenen barruan, Foru Lege honetan eta hori garatzeko arauetan xedaturikoa betetzera premiau beharko dituzte bolondres entitateak eta urtero Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseiluko idazkaritzara diruz lagundu edo hitzarturiko ekitaldi eta egitarauak igorriko dituzte, Foru Lege honetan ezartzen den zabalpenarekin.

#### IV. CAPITULUA Gizartearen parteharzea

**18. bis artikulua berria.** 1. Nafarroako Bolondresen Kontseilua sortuko da, parte hartzeko organo gisa, kontsulta-izaera izango duena; bolondres lanetan inplikatura dauden gizarte-eragileak elkar topatzeko eta bertan aholku eskatzeko eta kontsulta egiteko gunea izango da.

2. Kontseilu hori bolondres entitateen erregistroa kudeatzeko eta Bolondresen Departamentuarterko Batzordearen idazkaritza izateko ardura hartuko duen Nafarroako Gobernuako Departamentuari atxikiko zaio.

**18. ter artikulua berria.** Eginkizunak.

Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseiluak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Txostena ematea, derrigorrez, bolondres-lanean eragin zuzena duten Nafarroako Administrazio Publikoen izaera orokorreko arauzko xedapenen aurreproiektu eta proiektuei buruz. Eskatzen denetik hamabost eguneko epean eman beharko da txosten hori.

b) Bolondres-lanaren oinarritzko beharrianak detektatzea eta aztertzea.

c) Nafarroako Administrazio Publikoei aholkuak ematea eta horiei bolondres-lanaren esparru ezberdinei buruzko proposamen eta ekimenak bidaltzea. Baita ere, bolondres-lanaren egitarauak diruz laguntzeko garaian lehentasunezkoak jo litezkeen irizpideak proposatzea.

d) Bolondres-lana sustatzeko neurriei buruzko azterketak egin eta Administrazioei proposamenak igortzea.

e) Bolondres-laneko egitarauak dagokienez Nafarroako Administrazio Publikoek eginiko jarraipen eta ebaluazioari buruzko informazioa jasotzea, baita emandako dirulaguntzei buruzkoa ere.

f) Urtero txosten bat igortzea Foru Komunitateko bolondres-lanaren egoerari buruz.

g) Elkartasunarekin zerikusia duten parteharzte-organoetan gizarte-agenteak egon daitezela sustatzea.

h) Kontseiluaren Funtzionamendurako Erregelamendua Gobernuari proposatzea.

i) Bere jardueren urteroko oroit-idazkia onestea.

**18. quater artikulua berria.** 1. Ondoko hauek osatuko dute Bolondresen Nafarroako Kontseilua:

a) Lehendakaritza. Kontseilua atxikia dagoen Departamentuko titularrak beteko du.

b) Lehendakariordea. Bolondresen erakunde-  
ei, bolondresei eta sindikatu-  
dagozkien mahaikideek hautatuko dute, hain zuzen ere mahaikideen artean.

Lehendakaria kanpoan, gaixorik edo legezko beste edozein egoeratan dagoen bitartean, haren ordezkari izango da.

c) Zazpi mahaikide, bolondres lanarekin zerikusia duten Nafarroako Gobernuko zuzendari nagusiei dagozkienak.

d) Bolondres lanetan adituak diren Nafarroako Foru Administrazioari hiru teknikari.

e) Toki entitateetako hiru ordezkari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendatuak.

f) Bolondres entitateen erregistroan izena emandako bolondresen entitateetako zazpi ordezkari.

g) Hiru bolondres, taldea ongi ordezkari izatekoak.

h) Foru Komunitatean ordezkari gehien dituzten sindikatu-  
dagozkien hiru ordezkari.

2. Idazkaritza Kontseilua atxikia dagoen Departamentuko Idazkari Teknikoak beteko du.

3. Kontseiluko kideen izendapena Kontseiluko Lehendakariak berak egingo du.

4. Bolondresen entitateetako, bolondresen edo erakunde sindikalen ordezkari diren mahaikideen agintealdia lau urtekoa izango da.

Administrazio Publikoei dagozkien mahaikide-  
tzak betetzen dituzten pertsonak beren kargua utzi beharko dute Lehendakariak edo Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak hala eskatzen duenean.



### **Xedapen gehigarria**

Nafarroako Gobernuak, gehienez ere Foru Lege honek indarra hartu eta urtebeteko epearen barrenean, Bolondres Entitateen Erregistroko erregelamendua onartuko du, eta laguntza ekonomikoak, entitateendako laguntza teknikoa eta Nafarroako Bolondresaren urteroko aipamena eskuratzeko bidea, eta Bolondres Laneko Departamentuarteko Batzordeko eta Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseiluko erregelamenduak ere bai.

### **Xedapen iragankorra**

Nafarroako Gobernuak Bolondres Entitateen Erregistroa arautu arte, horiek segituko dute arloan eskudun diren departamentuen menpeko erregistroan inskribatzen.

### **Azken xedapena**

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

---

## **Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholku-emaileari buruz zenbait neurri har ditzan**

### *«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA*

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholku-emaileari buruz zenbait neurri har ditzan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Herrilan eta Azpiegitura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariet emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean ondoko mozioa aurkeztu du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordean eztabaida dadin.

Joan den martxoaren 4ko bilkuran, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak iragarri zuen hurbil dagoela Nafarroako Gobernuaren eta RTVE Erakunde Publikoaren arteko akordio-markoa sinatzeko unea. Akordio hori lehenbiziko urratsa da Nafarroako lurralde-programazioa zabalduko duen berriazko akordioa sinatzeko.

Berriazko akordio horretan baldintza bat sartuko omen da Berriazko Hitzarmena jarraitu, gainbegiratu, interpretatu eta exekutatzeko, eta horretarako Askotariko Batzorde Parekide bat eratu nahi da, hitzarmena sinatu dutenek osatua.

Bidezko izanen litzateke Parlamentu honek eskatzea RTVENaren Kontseilu Aholku-emailea

Nafarroaren partez Askotariko Batzorde Parekidean sartzea, ikusita Nafarroan irrati eta telebistan programazio berekia emateko akordio horrek izanen duen eragina. Programazio horrek guztion ustez demokratiko, anitz eta kalitatezkoa izan behar du.

Nafarroako RTVEren Kontseilu Aholku-emailea 2/1985 Foru Legearen bitartez sortu zen, RTVEN Foru Komunitatearen interesen ordezkaria izateko. Emandako eginkizunen artean programazio proposamenaren eta Nafarroako eremuan irrati eta telebista emisioen ordutegiaren inguruan aholkua ematea dago. Legeak ezarri zuen, gainera, RTVENaren Kontseilu Aholku-emailearen gomendioek publizitatea hautatzeko eta programazio berekiko kuotak ezartzeko irizpideak bilduko dituztela.

Lege horrek berak 2.e) artikuluan ezarri zuen RTVEko Lurraldeko Zuzendariari zuzeneko laguntza emanen diola Nafarroako lurraldearen eremu osoan ematen diren programak hartu ahal izatearen inguruan eta programa horien finantziazioari dagokionez.

Era berean, 1998ko otsaileko Erregelamenduak, 2/1985 Foru Legearen antolamenduzko eta funtzionamenduzko alderdiak garatzen dituenak, ezarri zuen Nafarroako Gobernuak emanen dituela Kontseiluari esleitutako eginkizun guztiak betetzeko behar diren giza baliabide eta gauzazko material guztiak.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea Nafarroaren ordezkari izenda dezan Askotariko Batzorde Parekidean, Foru Komunitatearen eta RTVEren arteko Lankidetzaren Hitzarmen berriazkoa jarraitu, gainbegiratu, interpretatu eta exekutatzeko.

2. Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari 2/1985 Foru Legeak esleitu zizkion eginkizunak betetzeko behar dituen giza-baliabide eta baliabide teknikoak eman dakizkion.

3. Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari kokapen fisiko iraunkorra eman dakiola RTVEk

Nafarroan duen Lurralde Zentroan, izan ere Nafarroako Gobernuaren jabetzapekoa den horretan.

Iruñean, 1998ko martxoaren 10ean

Foru Parlamentaria: M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo

## **Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako autonomia fiskala eta finantzarioa aintzat har dezan**

### **«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako autonomia fiskala eta finantzarioa aintzat har dezan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Juan Cruz Alli Arangurenak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Bozeramaileak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Osoko Bilkurari eztabaida dezan.

Europako Batasuneko Ekonomi eta Finantzetako Ministroen Kontseiluak (EKOFIN) erabaki politiko bat hartu zuen 1997ko abenduaren 1eko bilkuran, zergen pilaketa kaltegarriaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzei buruz. Fiskalitate gaietarako Komisarioak, Mario Monti jaunak, baieztatu zuen akordio horren bitartez "kide diren estatuak kantoi-harri bat jarri dutela Batasunaren helburuak lortzeko... Zergen alorrean koordinazioa lortzeko -eta horretarako funtsezko oinarriak gaur jarri ditugu- bidea emanen du barne merkaturuan gertatzen diren funtzionamenduzko desegokitasunak murrizteko, formula fiskalen higatze

gero eta handiagoa galarazteko eta enpleguaren aldeko zerga-politikei jarraipena emateko".

Akordioak berarekin dakar enpresen fiskalitateari buruzko jokabide kode bat, bere barnean kaltegarri gerta litezkeen zergen pilaketak gauzatzen dituen zerga-araubide berririk ez ezartzeko eta daudenak poliki-poliki deusezteko.

Espainiako Gobernuaren helburua zen esplizituki adieraztea autonomia fiskala duten erkidegoek Estatuak adina aukera izatea alde batera edo bestera egiteko sozietateen gaineko zergak finkatzeko orduan, eta erkidego horiek, gainera, ez izatea onura fiskalen bitartez enpresak erakartzeko dirulaguntza publikoak partitzen dituzten lurralde mailako entitate gisa hartuta. Politika fiskala erabiltzea, beraz, autonomia fiskala daukan entitate baten aukera bat izanen litzateke, Estatu kideek egiten duten antzera.

Ildo horretatik, Ekonomi eta Ogasun Ministroak, Rato jaunak, baieztatu egin zuen inolaz ere ezin izanen direla hartu Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko foru ogasunen araubide horiek, ohikoak direnak eta gure zuzenbide konstituzionalean eta tributuen arlokoan aspalditik sartuta daudenak, lehiaren aurkako jardun puntual gisa. Testuak inplizituki onartzen du Estatu baten barrenean zerga-araubide ezberdinak egon daitetzkeela, nahiz eta Espainiako ordezkariak ahalginak egin zituen zerga mailan subirano diren edo izanen diren Espainiako erkidegoen eskubidea ezagutua izan zedin.

Horrek berarekin dakar Europako Komunitateak onartzen duela Espainiako Estatuan zerga-araubide ezberdinak daudela, elkarren artean ezberdinak, partearen arteko akordio bidez artikulaturik daudenak; fiskalitate ezberdinak, beraz, ez dira erregio mailako erakundearen dirulaguntzak,

baizik eta finantza-tresna ezberdinak eta Europako estatu kideetakoak bezain zilegizkoak.

Akordio hori, Madrilgo gobernuko ordezkarien zalantzarik gabeko laguntzarekin lortutakoa, kontraesanean dago gobernu horrek Konstituzio Auzitegian Nafarroako Parlamentuko zenbait lege fiskalen aurka jarrita dituen bi errekurtsorekin.

Alde batetik, Inbertsioa eta jardun ekonomikoa laguntzeko azaroaren 15eko 12/93 Foru Legearen aurkako 549/94 errekurtsua dago; bertan ondoko puntu hauek aurkatu ziren: inbertsioetarako erreserba berezia, enpresa txikien kapitalizazioa eta onura horiek PFEZeko subjektu pasiboei aplikatzea. Errekurtsio horretan esaten da aurkaturiko neurriek distortsio larriak eragiten dituztela nazio mailako merkatuan, bazterketa mailako ondorioak sortzen dituztela, eta nazio mailako antolamendu ekonomikoaren batasunaren aurkako atentatuak direla. Bestetik, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/96 Foru Legearen 52, 53, 54, 55, 56, 156 eta 157. artikuluen aurkako 1299/97 errekurtsua dago, sortu berriak diren enpresei eta zuzendaritza, koordinazio eta finantziario zentroeiei emandako onurak aurkatzeko dituenak. Aurreko errekurtsoko argudio eta hitz berdinak erabiltzen dira, eta bi errekurtsuak batera izapidatzea eskatzen da.

Argi dago, EKOFINek Madrilgo gobernuaren laguntzarekin hartutako akordioa ez datorrela bat Konstituzio Auzitegian jarrita dauden errekurtsorekin, hain zuzen ere Nafarroako autonomia fiskala zalantzan jartzen dutenak eta gure autonomia bera ezagutzen ez duen norbaiten eskuetan uzte-

ko eta daukan edukia galtzeko arriskuan jartzen dutenak. Hori guztia dela eta, Osoko Bilkurari ondoko Erabaki Proposamena aurkeztu diogu:

“Estatuko Gobernua premiatzea Nafarroako zerga eta finantza mailako autonomia aitor dezan, haren eskubide historiko baten agerpena delako, 1839ko urriaren 25eko eta 1841eko abuztuaren 16ko legeei, Konstituzioaren lehenbiziko xedapen gehigarriari, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Foru Legeari eta indarrean dagoen Nafarroa eta Estatuaren arteko 1990ko Hitzarmen Ekonomikoari jarraituz.

Estatuko Gobernua premiatzea hauxe aitor dezan, Europako Batasuneko Ekonomi eta Finantzetako Ministroen 1997ko abenduaren 1eko Kontseiluak hartutako akordioari jarraituz, Nafarroako Foru Komunitateak eskubidea duela zergak ezartzeko, berezko zerga sistema bat duelako Estatuaren zerga-sistemaz bestekoa, harekin indarrean dagoen hitzarmen ekonomikoak ezarritako terminoetan artikulatzen dena.

Estatuko Gobernua premiatzea akordio bat har dezan Konstituzio Auzitegiaren aurrean jarrita dituen Inbertsioa eta jardun ekonomikoa laguntzeko azaroaren 15eko 12/93 Foru Legearen aurkako 549/94 errekurtsua eta Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/96 Foru Legearen zenbait artikuluren aurkako 1299/97 errekurtsua atzera bota ditzan.”

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

## **Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Aceralia Taldeko lanpostuak mantentzeko behar diren urratsak eman ditzan**

### **«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Aceralia Taldeko lanpostuak mantentzeko behar diren urratsak eman ditzan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Industri, Lan, Merka-

taritza eta Turismo Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietiek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Industri, Merkataritza, Lan eta Turismo Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen Azalpena.

1994 urtean Nafarroako Legasa, Lesaka, Zalain eta Berribeitin kokaturiko lantegietan eragiten zuen Siderurgia Integralerako Lehiakortasun Plana egin zen, berarekin lantegi horietako plantilen berregituraketa ekarriko zuena.

Lehiakortasun Plana erakunde sindikalek eztabaidatu zuten eta 1994ko azaroaren 10ean Iruñean AHV S.A. eta PERFISAKo zuzendaritzak eta UGT, CCOO, ELA-STV, LAB, USO, CC eta ESK-CUIS sindikatuetakoa ordezkariek akordio bat sinatu zuten.

Aipatu akordio horretan, bai plantilako soberakinak, bai enpresak lau lantegi horien bideragarritasuna eta lehiakortasuna bermatzeko zenbait inbertsio estrategiko egiteko konpromisoa ezarri ziren.

Zehazki, hasiera batean programaturiko inbertsioak 1132 milioi pezetakoak ziren Lesakako lantegirako, 44 milioi Legasakoan egiteko, 2228 milioi pezeta Zalaingo lantegirako eta 158 Berribeitikorako.

Birmoldaketari eta enplegu erregulazioari buruz izandako negoziazioen ondoren eta ikusirik Berribeitiko lantegian 244 lanpostu desagertzeak gizartearen sortuko lukeen kostua, bi parteak akordio batera heldu ziren -sinaturiko agirian agertzen den bezala- Berribeitiko instalazioak teknologikoki hobetzeko xedearekin, lantegi horretan 1226 milioi pezetako inbertsioak egiteko konpromisoa hartuz; zenbateko horretatik 570 milioi Itxiturak eta Panelak Unitaterako ziren eta 656 milioi Hodi eta Profilen Unitaterako.

Alderdi Popularra Gobernura heltzearekin, abian jarri zuen enpresa publikoak privatizatzeo programa erasokor bat, Corporación Siderúrgica Integral enpresan (CSI) ere eragina zuena, hain zuzen ere Lesaka, Legasa, Zalain eta Berribeitiko lantegien jabe den horretan, eta Luxenburgeko ARBED taldeari saltzeko prozesuan ere sartu zena. Hortik ACERALIA enpresa sortu zen.

ARBED taldeko Hitzarmen Estrategikoaren Agirian 1998tik eta 2002 urtera 156.000 milioi pezetako inbertsioa egitea aurreikusi zen. Horieta-tik 8.000 Nafarroako lantegietan egin beharreko inbertsioak ziren, nahiz eta zehaztu egin zen

2.100 milioi pezeta galbanizatu eta pinturako lerro baterako izanen zirela, gainerakoen, hau da, 5900 milioi pezetaren zertarakoa zehaztu ez bazen ere.

CSI + ARBED Hitzarmen Estrategikoak a priori esanda eta Gobernu Zentralak emandako datuen arabera, inbertsioak handitzea ekarri du, CSIren zenbatespenaren arabera 89.000 milioitik 156 milioira; hala ere Nafarroako Autonomi Erkidegoari dagokionez, 67.000 milioiko handitze horrek, hau da CSI-k aurreikusitakoaren ehuneko 75,28, ez du batere hobekuntzarik ekarri, CSI enpresa publikoak 1994ko azaroaren akordioen ondorioz Nafarroan egin behar zituen inbertsioak ARBEDek bereganatzen dituenak direlako, paperean behinik behin.

Nafarroako A.E.aren kasuan, datozen urteetarako 8.000 milioiko inbertsioa aurreikusi dira, baina, beste komunitate batzuetan bezala, inbertsio horiek ezi diote onura handiagorik ekarri; beraz, ez dira bermatu ez lantegietako lanpostuen bideragarritasuna ezta lanpostu berriak sortzea ere.

Nafarroak ikusi ahal izan du siderurgia integralko inbertsio horiek nola izoztu diren. Argi dago Asturiasko A.E. -109.550 milioi pezetako inbertsioa (aurreikusitakoa baino % 220 gehiago) eta Euskal A.E. -26.200 milioi pezetako inbertsioa (CSI-k aurreikusitakoa baino % 336,60 gehiago) izan direla onura handiena lortu dutenak privatizazio eta hitzarmen estrategiko horren ondorioz. Bi autonomi erkidegoetako gobernuak behar ziren urratsak eman zituzten modu egokian eta garrantzia handia emanez, ARBEDeko zuzendaritzarekin eta Espainiako Gobernuarekin hura lortu ahal izateko. Valentziako A.K-k, bere aldetik, behar diren urratsak eman ditu ACERALIAren inbertsioen inguruko hitzarmenen bat lortzeko, hain zuzen ere Saguntoko lantegietara eramateko.

Beste alde batetik, azpimarratzekoa da Nafarroako iparraldeko lantegietan (Lesaka, Legasa eta Zalain) inbertsioak egiten diren bitartean, izozten ari direla Berribeitirako hitzartutakoak, hain zuzen ere 1994an 244 langile bota izateagatik kostu sozial handiena jasan behar izan zuen lantegirakoak. Izan ere, Eraikuntza unitatean (Itxiturak eta Panelak) egin diren inbertsioak -epe laburrean 800 milioi inguru beharko direla zenbatetsi da-, gelditu egin dira eta ez dago, edo behintzat jende gehienak ez du ezagutzen, Inbertsioei buruzko Planik, beraz ez dago, edo ez da ezagutzen, haiek garatzeko programarik dagoenik ez eta burutuko delako berme sendorik ere.

Corporación Siderúrgica Integral (CSI) enpresa publikoaren akzioak enpresa publiko bati saldu

ondoren -nahiz eta beste hori, ARBED alegia, Luxenburgekoa den- saldu eta ACERALIA sortu ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko lantegien bideragarritasuna arriskuan jartzen ari da, batez ere Berriobeitikoaren kasuan.

Beste autonomi erkidegoetan ACERALIA enpresa berriak produktu berria eta merkatu berriak bilatzeko erronkak bereganatu dituen bitartean, eta ondorioz hori lortzeko behar ziren inbertsioak programatu dituen bitartean, Foru Komunitatean antzeman dugun joera da Iruñeko lantegia progresiboki deuseztea eta iparraldeko lantegietan (Lesaka, Legasa eta Zalain) aurreko enpresa publikoak, CSIk, programatutakoa mantentze hutsa.

Langileek bai 1994 birmoldaketa prozesuan, bai 1997ko pribatizazio prozesuan izandako joka-era eredugarria gora-behera, hainbat egitate direla-eta Berriobeitiko langileen susmoa da -eta horiek 1994an birmoldaketaren ondorioak jasan behar izan zituzten- lantegi hori progresiboki deuseztuko dela edo agian ez ote den izanen admi-

nistrazio eta kudeaketa lanetarako zentro bat, produktio unitate guztiak kenduta.

Hori guztia dela eta, ondoko erabakia hartu da:

Nafarroako Gobernua premiatzea behar diren urratsak eman ditzan Espainiako Gobernuarekin, ARBED taldean daukan partaidetzaz baliaturik:

1. Nafarroako Foru Komunitatean Aceraliak dituen lantegi guztietako lanpostuak berma ditzan, bereziki Berriobeitiko lantegikoak.

2. ACERALIA enpresaren planak indar ditzan, egutegi argia eta zehatza jarritz Foru Komunitateko lantegi bakoitzean egin beharreko inbertsioetarako, modu horretan Berriobeitiko lantegiaren bizi-raupena eta baita garapena ere bermatuz. Horretarako Hodiak eta Profilak lerroa modernizatu, Eraikuntza, Itxiturak eta Panelak lerroak indartu eta lehengaiak eta produktu bukatuak biltzeko dauzkan unitateak eguneratu eta dimentsionatu behar dira.

Iruñean, 1998ko martxoaren 10ean.

Bozeramailea: Carlos Cristóbal García

## **Mozioa, Hezkuntza Departamentua premiatzen duena Derrigorrezko Irakaskuntzaren ondoko Eskola Mapa bat bidal dezan**

*«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» ETA «IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEEK AURKEZTUA*

«Socialistas del Parlamento de Navarra» eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeek ondoko mozioa aurkeztu dute: Mozioa, Hezkuntza Departamentua premiatzen duena Derrigorrezko Irakaskuntzaren ondoko Eskola Mapa bat bidal dezan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietako emendakinak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Socialistas del Parlamento de Navarra eta Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeek, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaida dadin.

Nafarroan batxilergo berriak ezarri behar diren garaian gaude. 98/99 ikasturtean batxilergoko lau eredu berrien lehenbiziko maila hasiko da Hezkuntza Departamentuak baimendutako ikastetxe guztietan.

Atzerapenen eta eskola-plangintzaren gaitz endemikoarekin segitzen dugu. Erakundeetan irizpideen zehaztasun ezan nabigatu behar dugun bitartean, esate baterako sare pribatuko derrigorrezkoaren ondoko ikasketen finantziazioaren gaian, kalean eta komunikabideetan Nafarroako gizarte eztabaida publikoan ari da, gai honi

buruz dauden jarreraren arteko ezberdintasun handiak agerian utzita.

Ikasleen gurasoek, sindikatuek, ikastetxeek, irakasleek, elkarteek eta alderdi politikook mota ezberdinetako jarrerak erakutsi ditugu gai hau dela eta. Klean dagoen eztabaida Biltzar honetara ekarri behar da, izan ere hiritarren interesen ordezkariak delako.

Gure iritziz, ahal den eta adostasunik handiena lortu behar dugu, daukagun erantzukizunarengatik; beraz, ezin gara geratu gizartean dagoen eztabaidatik kanpo, izan ere jokoan daudelako Nafarroako hezkuntza sistemarako orainaldian eta geroan eragin garrantzitsuak izanen dituzten erabakiak.

Ezin dugu aurrera jarraitu azken urte hauetan Nafarroan aplikatu den politikarekin, hain zuzen ere ikastetxe pribatuentzako baimenek berekin ekarri dutelako automatikoki itunduta izatea, Estatuan gertatzen denaz oso bestera. Hauek dira arrazoiak:

1. Hezkuntza pribatuarekiko itunak, kasu askotan, ekarri du zenbait ikastetxe pribatuk ikasleen familiei zenbateko osagarriak kobratzea, erabat legez kontrakoak direnak, elkarlehia desleialeko egoerak bideratzen dituztenak eta ikastetxe horiek defendatzen omen duten hezkuntzaren askatasuna urratzen dutenak, hain zuzen ere zenbateko horiek jende gehienak seme-alabak ikastetxe horietara ez eramatea ekartzen dutelako.

2. Hezkuntzaren alorrean kalitatea, eragingarritasuna eta eraginkortasuna lortu nahi baditugu, ikastetxeekiko itunak derrigorrezkoak ez diren hezkuntza mailetara zabaltzeak berarekin ekarriko luke derrigorrezko irakaskuntzako baliabideak nabarmenki murriztea, kontuan harturik doakotasuna bermatuta eduki behar duela hezkuntza sistemaren oinarria delako.

3. Ezin dugu onartu derrigorrezkoa ez den maila sare pribatuan ituntzea, maila horietako

ikasleei arreta emateko behar den hezkuntza gasua justifikatu gabe, eta betebehar hori derrigorrezko mailetara ere zabaldu beharko litzateke, gure iritziz. Zenbat eskola-postu behar dira itundu eta zein alderditan?

5. Uste dugu sare pribatua sare publikoaren osagarri eta lagungarria dela. Osagarri izate horrek garrantzi handiagoa hartzen du derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzari buruz ari garenean. Maila hauetako eskola postu guztien finantziazioak bi sareen arteko desoreka areagotuko luke, bereziki Iruñerrian.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu.

Erabaki Proposamena:

1. Hezkuntza Departamentuak hilabeteren buruan Biltzar honetara Derrigorrezkoaren ondoko Eskola Mapa bat bidaliko du ondokoen berri izan dezagun: L.H.ko eta batxilergoetako eredu guztietako eskolaratzearen egiazko beharrak, sare publikoak erabilgarri dituen eskola postuak eta sare pribatuaren irakaskuntza-eskaintza.

2. Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bitartez, ez du itunduko sare pribatuko derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza mailarik. Egun dagoen banan-banako beken sistema aplikatu ahal izanen da.

3. Salbuespen gisa, itunak sinatuko ditu beren kokapenarengatik eta hurbilen dagoen ikastetxe publikoak Legeak ezarritako hezkuntza lanak bereganatzeko modurik ez badu, betiere itundutako ikastetxe horrek bere irakaskuntzak LOGSEk ezarritako irizpideetara egokitzen baditu, benetan irakaskuntza publikoaren lagungarri izan dadin.

Iruñean, 1998ko martxoaren 14an

Foru Parlamentariak: Juan Andrés Platero  
Alda eta Isabel Arboniés Bermejo

## **Emakume Langilearen Nazioarteko Egunari buruzko aldarrikapen politikoa**

### *BOZERAMAILEEN BATZARRAK ONETSIA*

Bozeramaileen Batzarrak, 1998ko martxoaren 17an eginiko bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen:

Emakume Langilearen Eguna ospatzeko xedez, Nafarroako Parlamentuak berretsi nahi du gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alde lan egiteko duen borondatea, izan ere gizakiaren funtsezko eskubidea baita hori.

Hori guztia dela-eta, erabaki du:

1. Gizonen eta emakumeen artean egiazko berdintasuna egon dadin lortzeko lan egitea, horretarako erabaki-prozesuetako egituretan ere behar diren aldaketak eginez berdintasun hori bermatzearren.

2. Emakumeek eta gizonek erabaki publiko eta politikoetan parte hartzeko berdintasuna aldarrikatzea.

3. Onartzea funtsezko lana dela emakumeen eta gizonen artean botere publiko eta pribatuetan banaketa orekatua lortzeko beharra, ongi jakinik horrek aberastasuna sortuko diola gizarte osoari eta emakumeek erabaki postuetan behar dutena baino ordezkaritza murriztagoa izatea galera bat dela Gizateria guztientzat.

4. Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu Europako haibat goi-bileratan onetsitako adierazpenak eta agertzerak ematen du bere elkartasuna goi-bilera horien helburu guztiekiko.



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Musika irakaskuntzaren beharren gaineko ikerlana egiteari eta Udal Musika Eskolen finantziarioari buruzko galdera**

*M<sup>a</sup> ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak musika irakaskuntzaren beharren gaineko ikerlana egiteari eta Udal Musika Eskolen finantziarioari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejok, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Hezkuntza eta Kultura Bozeramaileak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz eratzun diezaioteen.

1997ko apirilaren 24an Hezkuntza eta Kultura Batzordeak erabaki bat onetsi zuen Pablo Sarasate Musika Kontserbatorioari buruz. Haren bidez Nafarroako Gobernua premiatu nahi zen sei hilabeteko epean Parlamentuan Musika Kontserbatorioko instalazio berriak eraikitzeke jarduketan plana aurkez zezan.

Erabaki haren bigarren puntuan, era berean, Nafarroako Gobernua premiatu genuen Nafarroako Udalen Musika Eskoletako plazen beharrei eta oinarritzko graduko arautu gabeko irakaskuntza finantziatzeari buruzko ikerlana ere egin zezan.

Hala ere, gaur den egunean, Biltzar honek ez du inongo informaziorik ez eta ikerlanik jaso onestitako erabakiari dagokionez.

Joan den urteko azaroan, Burlata, Lizarra, Barañain, Tuter eta Tafallako musika eskoletako ordezkari batzuk agertu ziren lan bilera batean Nafarroako musikaren irakaskuntzari buruzko ikerlan serio bat egitearen beharra berresteko, hain zuzen ere arazoari behin betiko konponbidea emateko.

1) Noizko aurreikusi du Nafarroako Gobernuak Nafarroako musikaren irakaskuntzaren beharrei eta zehazki Udalen musika eskolen finantziarioari buruzko ikerlana?

2) Zeri zor zaio Pablo Sarasate kontserbatorioko instalazio berriak eraikitzeke jarduketak aurkezteko orduan izandako atzerapena.

Iruñean, 1998ko martxoaren 10ean

Foru Parlamentaria: M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo

## **Pekinen egitekoa den Nafarroako Enpresarien Erakusketa Iraunkorrari buruzko galdera**

*LUIS GERARDO LOPEZ ESLAVA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Pekinen egitekoa den Nafarroako Enpresarien Erakusketa Iraunkorrari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Luis Gerardo López Eslavak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak 1997ko ekainean hiruorriko bat argitaratu zuen Pekingo 1997ko irailetik 1998ko abuztura bitarteko Nafarroako Enpresen Erakustaldi Iraunkorrari buruz; aldi berean, Nafarroako Gobernuak Merkataritza eta Turismo zuzendari nagusiaren gutunaren bitartez, Nafarroako enpresak bultzatu nahi izan zituen erakustaldi horretan parte hartzeko.

Dirudienez, Nafarroako 52 enpresak eman zuten izena Pekinera joan eta bertan beren produktuak erakusteko bidaian parte hartzeko; Nafarroako Gobernuak Merkataritza eta Turismo zuzendari nagusiak horixe jakinarazi zion iritzi publikoari aurtengo otsailean.

Erakustaldi hori hasi zenetik sei hilabete iragan direnean, Departamentu horretako Kontseilariak iragarri zuen proiektua bertan behera utzi behar zela aldi baterako, eta bestelako alternatibak eskainiko zitzaizkiela parte hartzeko izena eman-dako enpresei. Dena den, Kontseilariak aditzera eman zuen luzapen bat besterik ez zela eta hila-beteren buruan konponbidea emanen zitzaiola arazoari. Dirudienez, proposatu den alternatiba da Merkataritza Ganbarak antolatutako bidaian, Nafarroako Gobernuak ehuneko 75ean diruz lagundua, parte hartzea.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Zergatik bidali zizkien Nafarroako Gobernuak enpresei eta iritzi publikoari Pekingo Enpresen Erakustaldiari buruzko publizitatea eta argibideak emateko gutunak?

2. Zergatik iragarri zion Nafarroako Gobernuak iritzi publikoari zein enpresak emana zuten izena Pekingo Erakustaldian parte hartzeko.

3. Zergatik luzatu zuen Nafarroako Gobernuak Pekingo Enpresen Erakustaldira joateko bidaiaren irteera eguna?

4. Zergatik Nafarroako Gobernuak aurkeztu duen alternatiba gisa Merkataritza Ganbarak antolatutako bidaia, alegia Nafarroako Gobernuak berak % 75ean diruz lagundutakoa?

5. Nafarroako Gobernuak aztertuta al zituen Pekingo Erakustaldiaren ezaugarriak, iritzi publikoari agertu baino lehen?

6. Proiektuari berrekinen ote zaio, izan ere Kontseilariak hilabeteko epeaz hitz egin baitzuen?

Iruñean, 1998ko martxoaren 9an

Foru Parlamentaria: Luis Gerardo López Eslava

## Tracasako langileei bidalitako posta-komunikazioei buruzko galdera

### «IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Tracasako langileei bidalitako posta-komunikazioei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Espainiako Konstituzioak 18. artikuluko 3l puntuan ezarri zuen komunikazioen sekretuaren gaineko bermea izanen zela, bereziki postako komunikazioena.

Halaber, Sindikatuen Askatasunari buruzko Lege Organikoaren 8. artikulua ezarri zuen sindikatuen ekintzaren esparruan komunikatzeko eskubidea dagoela.

Hala eta guztiz ere, Nafarroako Gobernuaren jabetzapeko Trabajos Catastrales S.A. (TRACASA) enpresa publikoan, dirudienez, indarrean darraite Errregistro Aske bat egoteari buruzko arau batzuek. Erregistro horretan jasota geratzen dira enplegatu bakoitzari bidaltzen zaizkion eskutitzak, edukia barne.

Eskutitzei ematen zaien traera horrek isilpekotasuna urratzen ahal du, eta barne hartzen ditu, gainera, erakunde sindikalek bildalitako izaera sindikaleko eskutitzak.

Hori dela eta, jakin nahi da:

1. Ba al daki Nafarroako Gobernuak horrelako funtzionamendu arauak daudela enplegatuei bidalitako posta-komunikazioei buruz (izaera sindikalekoak barne) Tracasa enpresan? Egia al da Erregistro Aske bat dagoela enplegatu bakoitzari bidalitako eskutitzak, edukia barne, biltzen dituen? Zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia arau horiei buruz?

2. Hartuko al ditu Nafarroako Gobernuak behar diren erabakiak Tracasa enpresan publikoan posta bidezko komunikazioen, izaera sindikalekoak barne, isilpekotasuna bermatzeko?

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

## DBHrako hitzartutako zentrozen gaurko egoerari buruzko galdera

### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak DBHrako hitzartutako zentrozen gaurko egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnal, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako Foru Parlamentariak, Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten.

Itunpeko ikastetxeek gaur egun duten egoera jakin nahi dugu eskola-mapari dagokionez. Horregatik:

– DBHrako itunpeko ikastetxeentzat baimen administratiboak eta ondokoak:

- Zentroen zerrenda: izena eta herria.
- Baimendutako mailak.
- Itundutako gelak guztira.

• Itundutako gela horien zehazpena, zentroko eta mailaka. Halaber, ikasle kopurua gela horietako bakoitzean.

Iruñean, 1998ko martxoaren 10ean

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

## Ezkaba kanpineko errentamendu-kontratuari buruzko galdera

*M<sup>a</sup> ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Ezkaba kanpineko errentamendu-kontratuari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida - Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1993tik SEDENA S.A. enpresari esleitu zaio Nafarroako Gobernuarena den Ezkabako kanpinaren errentamendu kontratua; aipatutako kontratua 1997ko abenduaren 31an bukatu zen.

SEDENAK errentan ematen zituen zenbait lurzati modu iraunkor edo finkoan; horrek zenbait eskubide sorrarazi ditzake eta beraz harreman horiek mantentzeko beharra, nahiz eta Nafarrako Gobernu eta enpresaren arteko errentamendua bukatu.

Hori dela eta, ondokoa jakin nahi dugu:

1.- Nafarroako Gobernuak uste al du modu iraunkorrean kanpantzeko eskubidea dutela SEDENArekin kanpingean modu iraunkorrean zeudenek?

2.- Aurreikusten al zen Nafarroako Gobernuak eta Sedenak sinatu zuten errentamendu kontratuan errentan hartzen zuenak eskubidea izanen zuela kanping lurzatiak errentan modu egonkor eta iraunkorrean emateko?

Horrela ez bada, eskatu behar al ditu Nafarroako Gobernuak egoki diren erantzukizunak?

Iruñean, 1998ko martxoaren 12an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

## **Etxe langileen gizarte- eta lan-aurrerabidea sustatzeko aurreikusitako jarduketei buruzko galdera**

*XABIER VELEZ MEDRANO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak etxe langileen gizarte- eta lan-aurrerabidea sustatzeko aurreikusitako jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Xabier Vélez Medranok, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuloko eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Zer jarduketa aurreikusi du aurrera eramatea Nafarroako Gobernuak, etxe langileen araubide berezian gizarte- eta lan-aurrerabidea sustatzeko?

Langabezi sorospena kobratuko dutela aurreikusi al da?

Gaixoaldi-baja Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko langileek bezala kobratzea eta ez bajaren ondorengo 29. egunean al dago aurreikusia?

Neurririk aurreikusi al da Gizarte Segurantzaren aurrean, aurreko galderetan bezala, etxe-langileak berak ez dezan kotizatu beharrik izan zerbitzu ez-jarraituak ematen dituenean, hau da, astean 20 ordu baino gutxiago lan egiten duenean?

Iruñean, 1998ko martxoaren 13a

Foru Parlamentaria: Xabier Vélez Medrano

## **Tuterako udalaren dantza taldearentzako laguntzei buruzko galdera**

*M<sup>a</sup> ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Tuterako udalaren dantza taldearentzako laguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

María Isabel Arboniés Bermejok, Izquierda Unida - Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldearen Hezkuntza eta Kultura Bozeramaileak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuloko eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera idatziz erantzun diezaioten:

Tuterako Udalaren Dantza Taldea 1964 urtean sortu zen eta orduetik hona folklore eta kulturaren alde ari da lan egiten. Taldeak 65 kide heldu ditu, 35 gazte eta 103 haur; 65 dantzaz osaturiko errepertorioa eta 300 jantzi ere badituzte.

1992tik taldea Federación Española de Agrupaciones de Folclore-ren (FEAF) barne dago, eta hori bere aldetik Herri Artearen Nazioarteko Erakundearen barne dago.

Nafarroak aipatutako federazio horretan duen ordezkari bakarra Tuterako Udalaren Dantza Taldea da, eta federazioaren lehendakariordea dantza talde horretako kidea da.

Orain arte, Nafarroa jaialdietan ordezkatzeko egiten ziren joan-etorrien gastuak Tuterako Udalak soilik ordaintzen zituen.

Hori guztiagatik, ondokoa jakin nahi da:

1.- Beste dantza taldeei ematen zaizakien laguntzak galarazi gabe, zer laguntza eman diezaioke Nafarroako Gobernuak aipaturiko udal

dantza taldeari foru komunitatetik kanpora egiten dituen joan-etorrietarako?

2.- Zer laguntza aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak Tuterako Udalaren Dantza Taldeak

beste erkidego batzuek antolatutako ikastaro eta ekitaldietan partu hartu ahal izan dezan?

Iruñea, 1998ko martxoaren 16an

Foru Parlamentaria: M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo

## Nafarroako Jaialdien programazioari buruzko galdera

### *M<sup>a</sup> ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Nafarroako Jaialdien programazioari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

María Isabel Arboniés Bermejok, Izquierda Unida - Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldearen Hezkuntza eta Kultura Bozeramaileak, Parlamentuko 184. Erregelamenduko artikulok eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera idatziz erantzun diezaioten:

Iaz Tuteran Nafarroako Jaialdietatik kanpo geratu zen, eta ez ziren argi gelditu aipaturiko jaialdietako programazioa egiteko erabilitako irizpideak.

1998an Fernando Remacha Tuterako semearen jaiotzaren ehungarren urteurrena ospatzen da, eta pentsatzekoa da Nafarroako Jaialdiek programatuta izanen dituztela ekitaldiak Erriberako hiriburuan gertakari hori azpimarratzeko.

Hori guztia dela eta, ondokoa jakin nahi da:

1.- Zer irizpide jarraituko dira aurten Nafarroako Jaialdien programazioa egiteko?

2.- Zer ekitaldi aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak Tuteran egiteko, Nafarroako Jaialdien barnean eta aipatu den urteurrenarekin zerikusia dutenak?

Iruñean, 1998ko martxoaren 16an

Foru Parlamentaria: M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo

## **Iruñeko kongresu jauregia-entzutegiko eraikuntzaren eta kudeaketaren balizko pribatizazioari buruzko galdera**

*M<sup>a</sup> ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Iruñeko kongresu jauregia-entzutegiko eraikuntzaren eta kudeaketaren balizko pribatizazioari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

María Isabel Arboniés Bermejok, Izquierda Unida - Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldearen Hezkuntza eta Kultura Bozeramaileak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulok eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera idatziz erantzun diezaioten:

Orain gutxi egunkarietan irten diren zenbait berrik diotenez litekeena da pribatizatzea Iruñeko kongresu jauregia-entzutegiaren eraikuntza eta kudeaketa.

Berri horiek, dirudienez, Ramón Bultó Nafarroako Industri Kontseilariak eginiko adierazpenak dituzte oinarri, ez baitzuen inolaz ere baztertu kongresu jauregi-entzutegi gunea ekimen pribatuaren kargu izateko aukera.

Convention Bureau erakundeak, Iruñeko kongresu jauregia izanen denaren oinarriko ideietan lanean hasteko eraturako organuak, ez ditu eza gutzen, dirudienez, etorkizuneko zenbait alderdi.

Hori guztia dela eta, ondoko jakin nahi da:

1.- Jauregia izanen denari buruzko zer azterlan edo bideragarritasun plan egin ditu edo eskatu ditu Nafarroako Gobernuak?

2.- Iruñeko kongresu jauregiaren eraikuntza eta/edo kudeaketa pribatizatzeke asmoa al du Nafarroako Gobernuak?

3.- Etorkizunean zein izanen da Convention Bureau erakunde publikoaren zeregina kongresu jauregi-entzutegiari dagokionean?

Iruñean, 1998ko martxoaren 16an

Foru Parlamentaria: M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo

## **Mendillorri bereizketa espedienteari buruzko galdera**

*JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Mendillorri bereizketa espedienteari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikita-

ko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulok eta ondokoak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1.- Zein da Mendillorri Egues dermiotik bereizi eta Iruñeko dermiora eransteke espedientearen egoera?

2.- Noizko dago aurreikusia espedientea behin-betikoz ebatzea?

Iruñean, 1998ko martxoaren 13a

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

## Zentro publikoetan “Zentroko Proiektu Linguistikoa”ri buruz informazio-hitzaldiak emateari buruzko galdera

*INMACULADA MATIAS ANGULO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak zentro publikoetan “Zentroko Proiektu Linguistikoa”ri buruz informazio-hitzaldiak emateari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Inmaculada Matías Angulo Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulok eta ondokoak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Dirudienez, Nafarroako Gobernuaren ILZtik, D eredua duten zentro publikoetan hitzaldiak ematen ari dira guraso eta irakasleentzat Zentroko Proiektu Linguistikoa.

Hori dela eta, hau jakin nahi da:

1.- Zentroko Proiektu Linguistikoari buruzko informazio-hitzaldirik eman al da Larrainzar Z.P.an? Baiezkoan, zehazki esan eguna, tokia, ordua, hizlariak, gaia, joandako irakasleen kopurua, joandako gurasoen kopurua, etab.

2.- Gurasoen elkarteek helarazi al diote Nafarroako Gobernuari inon kexarik hitzaldi horien edukiari buruz? Baiezkoan, zehazki esan zein elkartek, kexen edukia, zer bide eman zaien kexa horiei, Nafarroako Gobernuak egindako ikuskapena, hartutako neurriak, etab.

Iruñean, 1998ko martxoaren 6an

Foru Parlamentaria: Inmaculada Matías Angulo

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat ..... 5.900 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 135 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 170 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b></p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta, 12, 3</p> <p>31002 IRUÑEA</p>
--	--